

Neure eritzia azaldu naiz

Ihazko maiatzean Eibarko Haurren Euskal Jaia zela eta, «S.C.R. Arrate»ko saloian Bilbaoko Oskorri kantari taldeak eman zuen saioari, S. Basaurik kritika bat egin zion, esanez: «Oskorri taldearen saioa oso xalotua izan zen, baina bai forma eta bai mami aldetik ere merke samarra». Kritika hau guztiz aldekoa eta subjeliboa dela oharturik, eta aurten «Amaya» teatroan talde honek eman zuen saioa ikusi ondoren, neure eritzia nahi dut azaldu.

Lehenik, artearen eginkizuna problematika jeneral baten barruan nahiko nuke garbi azaldu, gizartearen historian zehar bi klase eta, ondorioz, bi ideologia desberdin egon direla kontuan hartuz. Bata, menperatzaileen ideologia menperatzailea; eta bestea, menperatuen ideologia. Hau onhartuz, artearen bide guztiak —ez bakarrik, musikalak, guztiak baizik— bi ideologia hauen artean aurkitu behar ditugu. Ideologia baten alde jokatzeko duenean eta bestearen aurka jartzen denean, orduan bakarrik esan dezakegu, adierazpide hori aurrerakoa ala reaktibarioa den. Ez dago beste irtenbiderik.* Hirugarren irtenbidea menperatzaileen ideologian sartzea besterik ez da. Ez daudela ez bata ez bestearen alde esaten dutenak, burruka horretatik kanpo daudelako, ideologia menperatzaile horretan zeharo murgildurik daude. Holako esaldiak —«ba du gizonak nahiko buruhauste; saia gaitezen, ahantz* dezan»— ez dira menperatzaileen ideologiaren zatiak besterik, menperatuen aurka ezarritakoak.

Oskorri taldekoek ongi dakite errealitate hau, eta orduan menperatuei bizi diren egoera ikus arazteko nahi diete kantatu. Lortuko dute edo ez, hutsuneak ukanen* dituzte edo ez, arazo batzuetan oker ibiliko dira; baina, hala eta guztiz, alderdi aurrerakoi hori dute. Hots, ideologia garbi baten jabeak dira, eta Euskal Herriko langileei ez diete metaforetan kantatzen, ez eta abstraktuan ere, zuzen zuzenki baizik. Noski metaforetan kantatuko balute, eta esaldi huts batzuen atzean beren esannahia utziko balute, ez litzateke inor haien aurka jarriko, ez litzateke nehor* haien saioetatik haserreturik irtengo.*

Gizarteari mami bat ulertarazteko, artistak erabiltzen duen bidea forma dela onhartzen badagu, ene ustez, Oskorrikoek erraztasun handiz betetzen dute eginkizun hori. Lehenik, garbi utzi nahi dut, ez naizela jakitun bat musikan. Ez ditudala ez piano ez solfeoko ikaaketak egin; baina, egia esan, zapaldu bat naizela, hots,* langile bat naizela. Eta beldur gabe esan dezaket, oso ondo ulertu nuela, Oskorri bere musikaren bitartez esan nahi zeukuna.

Konponketak, bozak, kankak, hitzak, musika tresnak eta abar guztiz osatuak ziren; eta, nahiz eta kanta gehienak gure folkloretik ateratakoak izan, hitzek gaurkotasan handia zuten, Gabriel Arestiren lanari esker.

Ez dut uste oker ibiliko naizenik, Oskorri taldea beste talde famatuen parean ibil daitekeela esaten badut. Musika tresnen artean, azken urte hauetan bazterturik ziren gure tresna batzuk aukeratu dituzte, eta besteek gure musikan inoiz ez dituztenak erabili dira. Hauk* dira: xistua, trikitia, flauta, kitarra, kontrabaja eta pandereta. Eta horrela talde moderno bat lortu dute, gaurko musikaren sailean erraz sar daitekeena. Konponketak oso ondo; eta uste dut, Natxorenak —taldeko batenak— direla.

Azkenik, ba dakite nola egon, kantatzen dutenean; eta bai Ibarrolaren irudia ere oso ondo gelditzen zen ezenan.

EIBARKO IÑAKI

balute, balebe
daude, dagoz
dezakegu, daikegu
dezaket, daiket

dezan, daian
diete, dautsee
zeukun, euskun, zigun
zion, eutson